

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Derioko Udala****Derioko Udaleko 2023ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea**

Emandako ahalmenez baliatuz, Derioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko otsailaren 28an egindako bileran, besteak beste, (xx/8/2023-7 ) Erabakia hartu zuen:

**EBAZPENA:**

*Lehenengoa:* Derioko Udalaren 2023rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea eta 2019ko EPEko gauzatu gabeko bi lanpostu gehitzea, honako xehetasun hauekin:

1. Administrazio Orokorreko Eskalako plaza bat, Administrazio Azpieskala (8), C1 taldea, 22. destino-maila, 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe.
2. Arkitekto plaza bat, Administrazio Bereziko, Goi Mailako Teknikarien Azpieskala, Arkitektoa (33), A1 taldea, 26. destino-maila, 2019ko urtarrilaren 29an amaitutako 3. hizkuntza-eskakizunarekin.
3. Administrazio Bereziko plaza bat, zerbitzu berezien azpieskala, langilea (23), LM taldea, 16. destino-maila, 1. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data igarota ez duena.

*Bigarrena:* Enplegu Publikoaren Eskaintza argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Derioko Udalaren egoitza elektronikoan.

Ebazpen honek amaiera ematen dion administrazio bideari, baina bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da administrazio-organo beraren aurrean, hilabeteko epean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015) 123. eta 124.artikuluetan ezarritakoaren arabera. Bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa ere jarri ahal izango da egoki den Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1998 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori gorabehera, interesdunek egoki irizten dituzten beste errekurtso guztiak ere ezarri ahal izango dituzte.

Derion, 2023ko martxoaren 1ean.— Idazkaria